

2021eko hirugarren hiruhilekoan, 2.142 ezkontza izan dira, aurreko urtean baino % 43,4 gehiago

2019arekin alderatuta, % 17,6 egin dute behera

Euskal AEn, 2021eko hirugarren hiruhilekoan, 2.142 ezkontza izan dira, aurreko urteko hiruhileko berean (1.494) baino % 43,3 gehiago, Eustaten datuen arabera. Hiruhileko hartan, oraindik zeuden COVID-19aren pandemiaren ondoriozko zenbait murrizketa indarrean.

Hiruhileko honetako datuak 2019ko hiruhileko bereko datuekin erkatzen baditugu, ezkontza kopuruan % 17,6ko beherakada egon dela ikusiko dugu, eta horrek adierazten du 2020an geroraturako ezkontza guztiak ez direla aurten egin. Ezkontza guztietatik, 2.062 heterosexualak izan dira, eta 80 sexu bereko pertsonen artean izan dira (41 emakumeen artean eta 39 gizonen artean).

Lurralde historikoa kontuan hartuta, Bizkaian 926 ezkontza izan dira, Gipuzkoan 774 eta Araban 321; alegia, igoerak egon dira haietan guztietan aurreko urtearekin alderatuta, baina gehiago Araban (% 65,5) eta Gipuzkoan (% 54,4) Bizkaian (% 26) baino. Bestalde, ezkontzen kopuru txikiago batek (121) Euskal AEtik kanpora finkatu du bizilekua.

Hiruhileko honetan, ezkontza gehiago izan dira uztailan (% 44,5) abuztuan (% 15,8) eta irailean (% 39,7) baino.

2021eko udako hiletan, ezkontza zibilak % 85,8 izan dira, 2020ko hiruhileko berean baino 4,5 puntu baxuago. Ezkontza heterosexualen artean, ezkontza zibilak % 82,1 izan dira, 2020ko udan baino ehuneko 5,1 puntu gutxiago.

2021eko hirugarren hiruhilekoko 2.142 ezkontzetan, Euskal AEko 2.025 gizon eta 2.036 emakume ezkondu dira. 1.750 senarren kasuan (% 86,4), lehen ezkontza izan da; 15 gizonetzko alargun eta 260 gizonetzko dibortziatu berriz ere ezkondu dira. Emakumeen lehen ezkontzen ehunekoa gizonena baino 1,4 puntu baxuagoa izan da; aurretik ezkondu gabe zeuden emakumeak 1.730 izan dira (% 85), alargunak 11 eta dibortziatuak 295.

Bere horretan dirau atzerritarren ezkonberrien ehunekoak

Ezkontideen adinaren araberrako banaketari dagokionez, senarren % 91,3k eta emazteen % 83k 30 urte baino gehiago zituzten. 2020ko aldi berean, proportzioa % 93koa izan da gizonetan eta % 84,5ekoa emakumeetan.

Uztailan, abuztuan eta irailean, gizonetzko ezkonberrien % 10 eta emakumezko ezkonberrien % 13,5 atzerritarrak izan dira. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, gizonen artean, ehunekoa areagotu egin da, ehuneko 0,1 puntu handiagoa baita, eta, emakumeen artean, 1 puntu baxuagoa da.

Euskal AEko ezkontzak, bizilekuaren lurraldearen, sexuaren, aurreko egoera zibilaren, ospatzeko moduaren eta adinaren arabera (1). 2021/III

	Oraingo hiruhilekoa III/2021		Aurreko hiruhilekoa III/2021		Aurreko urteko hiruhileko bera	
	KOP	%	KOP	%	KOP	%
EZKONTZA	2.142	100,0	1.811	100,0	1.494	100,0
Araba / Álava	321	15,0	253	14,0	194	13,0
Bizkaia	926	43,2	818	45,2	735	49,2
Gipuzkoa	774	36,1	640	35,3	501	33,5
Euskal AEtik kanpo	121	5,6	100	5,5	64	4,3
Homosexualak	80	3,7	75	4,1	47	3,1
Gizon artean	39	1,8	22	1,2	15	1,0
Emakume artean	41	1,9	53	2,9	32	2,1
Heterosexualak	2.062	96,3	1.736	95,9	1.447	96,9
Kanonikoak	303	14,1	137	7,6	144	9,6
Zibilak	1.759	82,1	1.599	88,3	1.303	87,2
Senar-emazteak	2.025	100,0	1.687	100,0	1.403	100,0
Ezkongabea	1.750	86,4	1.374	81,4	1.140	81,3
Alargunak	15	0,7	16	0,9	15	1,1
Dibortzuatuak	260	12,8	297	17,6	248	17,7
< 30 urte	175	8,6	141	8,4	98	7,0
30 - 39 urte	975	48,1	712	42,2	618	44,0
= 40 urte	875	43,2	834	49,4	687	49,0
Espainiarrak	1.823	90,0	1.497	88,7	1.264	90,1
Atzerriko nazionalitatea	202	10,0	190	11,3	139	9,9
Emazteak	2.036	100,0	1.747	100,0	1.437	100,0
Ezkongabea	1.730	85,0	1.455	83,3	1.195	83,2
Alargunak	11	0,5	15	0,9	13	0,9
Dibortzuatuak	295	14,5	277	15,9	229	15,9
< 30 urte	347	17,0	248	14,2	223	15,5
30 - 39 urte	985	48,4	789	45,2	659	45,9
= 40 urte	704	34,6	710	40,6	555	38,6
Espainiarrak	1.762	86,5	1.462	83,7	1.229	85,5
Atzerriko nazionalitatea	274	13,5	285	16,3	208	14,5


(1) Hiruhileko honetako eta aurreko hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira

Data 2022ko Otsailaren 21a

Iturria: Eustat. Ezkontzen Estatistika

Euskal AE ezkontzak, egoitza lekuaren arabera

Hileroko datuak



Iturria: Eustat. Ezkontzen estatistika

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62